

Euskal Herriko foru-zuzenbide zibilari buruzko legea: Gipuzkoaren egoera

Mikel Karrera Egialde
EHUko irakaslea

Gipuzkoako Foru-Zuzenbidearen arlo pribatua bizirik iritsi zaigula aitortu da, ez doktrinaren analisisian bakarrik, jurisprudenzian eta, azkenik, lege bidez aitortu ere. Gipuzkoako Zuzenbide zibilak historian zehar jasan duen bilakaerari begirada bat eman ondoren, arlo horretako legeria garatzeko egun dagoen aukera aurkezten da; erronkari muzin egin gabe, etorkizuneko euskal zuzenbide zibilaren oinarriak ezartzen hasteko une historikoari erantzun behar zaio.

It has been recognized that the Local Law Code of Gipuzkoa has reached the private field alive, not only in the analysis of the doctrine, but also in jurisprudence; it has even been recognized by Law. After having a look to the evolution of the Civil Law of Gipuzkoa in history, the actual chance for developing this field of legislation is presented in this paper. Without showing cowardice, the bases for the Basque Civil Law of the future must be established.

Sarrera

Euskal Zuzenbidetzat zer jo behar den eztabaidatzen hasi gabe, argi dagoena da aurreko mendean ezabatu zen Foru-Sistema Euskal Zuzenbidea zela. Foru-Zuzenbide hura gehienbat euskal tradizioetatik eratorritakoa zela aski frogatua izan da; herriak berak, usuario eta ohituren bidez, arau-sistema bat sortu zuen. Hain zuzen ere, Probintzia bakoitzak bere arau propioak zituen, lurralde bakoitzeko gizartea arautzen zuen sistema berezia, nahiz eta hasiera batean funtzionatzeko zuen askatasuna oso murriztua geratu bere izatearen azken aldian.

Hortik abiatu, eta Zuzenbidearen zatiketa nagusia kontuan izanik, araudi hartan ere bi arau-mota zeudela esan genezake: Zuzenbide Publikoa osatzen zuten arauak, eta Zuzenbide Pribatua osatzen zutenak. Kontuan izan behar da baita, arau batzuk idatziz jarriak eta beste batzuk ohitura bidez mantenduak izan zirela.

Laburpen orokor hori onarturik, nahiz eta, jakina, bertan matizazio asko egin daitezkeen, kontua da arau-sistema hartako Zuzenbide Pribatuko zenbait erregela indarrean dauzkagula gaur egungo euskal gizartean. Foru haietatik geratzen zaigun aztarnarik adierazgarriena eta nagusia Foru-Zuzenbide Zibila dugu. Esan daiteke Zuzenbide Publiko osoa ezabatua geratu zela, eta haren ondoren sortu ziren beste erakundeak, esaterako Kontzertu Ekonomikoak, jatorrizko Foru-sistematik kanpo sortutako beste erakunde-mota batzuk direla; indarrean jarraitu zuten arauak Zuzenbide

Pribatukoak izan ziren¹ soilik.

Ikuspegi horretatik, Euskal Zuzenbidearentzat oso garrantzitsua da Foru-Zuzenbide Zibil hori, bere baitan euskal izpirituaren islada eta euskal tradizioaren mamia aurkitzen baita. Ez da alferrik esaten, bestela, herri baten berezitasuna frogatzen duten ezaugarriak bere hizkuntza eta bere erakunde juridikoak direla.

Lan honen helburu apala, gaiaren aurkezpen soil bat egitea da, eta Gipuzkoako kasuaren eremuan. Horrela, gaia gizarteratze-lanetan laguntzeko bultzada izan nahi du. Ez dirudi euskal gizartea, oso sentikorra hainbat arazoren aurrean, gai honek duen garrantzi bereziaz konturatu denik; ez da somatzen behintzat beste lurralde batzuetan (Katalunia eta Aragoa esaterako) agertu den ardura eta Zuzenbide Pribatuko erakunde zibil propioak bultzatzeko gogo bizia.

Kontzientzi falta hori ez da gizartearena bakarrik. Euskal historia aztertzen dutenek ere aitortu dute jadanik Zuzenbide Pribatuari ez diotela jaramon gehiegirik egin. Duela hogeita hiru urte kezka hori agertu zuen Michel Unzuetak 1971n Bilbon egin zen Euskal Antropologiari buruzko II. Astean. Gaurdaino behintzat alderdi publikoa izan da nagusi histori-gileentzat, eta horregatik gogorarazi behar da Euskal Zuzenbidearen alderdi pribatuaren garrantzia, bigarren mailara gaitzetsi gabe.

Konstituzioari eta Estatutuari eskaini zaizkien ihardunaldietan Zuzenbide Zibila bazterrean geratzen da. Badirudi agintari politikoek ez diotela garrantzi

1. «Inquieta quizá menos la variedad de las fórmulas de relación de la sociedad civil que la dispersión del poder político» (Monreal 1986: 60).

gehiegirik eskaintzen esparru pribatuari, eremu publikoari eskaini dizkieten ikerketa-saioekin alderatuz gero behintzat; lurraldearen antolaketa, produkzio-baliabideak, ingurunea, industria, ordena publikoa eta hezkuntza dira lege horien aztergai nagusiak.

Baina, azkenik, Gasteizko Legebiltzarrean onartu da Euskal Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Legea². Bertan Lurralde Historiko bakoitzari liburu bat eskaintzen zaio, non Lurralde bakoitzari buruzko Foru Zuzenbide Zibila bil daitekeen. Horrela, Gipuzkoak bereztat gordea duen tokia III. Liburua da. Artikulu bakar batek osatzen du liburu hori, 147. artikulua hain zuzen ere. Politika juridikoko erabakia izan da planteamendu hori aukeratzea; kon-tuan izan behar da beste bide zabalago batzuk jorra zitezkeela eta ondorioz erabakiaren egokitasuna eztabaidagai dela, baina dagoena lege horretan isladatutakoa izanik, bertan agertzen dena azaltzea izango da geure helburua.

Gipuzkoako Foru Pribatuaren bilakaera

Harrigarria dirudi Gipuzkoaren mugakide diren lurralde guztiek, era zabal zein murriztazo batean, Foru-Zuzenbide Zibila konpilatu izana eta Gipuzkoak nola ez duen horrelakorik egin. Bizkaiak, Arabak eta Nafarroak beren Foru Zuzenbide Zibilaren konpilazioa egin dute, eta Gipuzkoak ez. Doktrinan irla baten antzera geratu dela Gipuzkoa esaten da, Foru-

-Zuzenbide Zibila duten lurraldeen artean (Celaya 1993: 303); irla baino, agian, egokiagoa da Gaztelako Zuzenbidearen kolonia moduko bat bezala agertzen dela esatea.

Hori horrela zergatik den jakiteko nahitaez historiara jo behar da, eta bereziki, Gipuzkoaren sorrera aztertu eta arlo pribatuan aplikagarri ziren iturri-sistemen finkatzea. Azterketa horretarako ezinbestekoa da Navajas Laporteren tesira jotzea³; hain zuzen ere berak egindako sistemati-zazioa laburbilduko dugu hemen.

XII. mendetik XIV. mendera bitartean sortzen dira hiriak Gipuzkoako lurraldean, bizitza eta garapen independentea dutelarik. Hiri horiek ez dira batuko 1397. urtean, Getariko herrian, Gipuzkoako Hermandadea sortu arte, beren arauak Koaderno batean biltzen dituztelarik. Hortik aurrera, eta Koaderno hori garatuz 1457an eta 1463an, eratuko da probintzia gisa Gipuzkoa. Bien bitartean hiri bakoitzak bere Forua izango du; Donostiako Forua (Jakan sortu eta Lizarra bidez etorri zena) eta Gasteizko Forua (Logroñoeko Foruaren luzapena) zabaltzen dira Gipuzkoako hirietara. Horietan aplikagarri Foru idatzi hori izango da, eta horren ezean ohitura. Zuzenbide Zibilar buruzko arau gutxi batzuk jasotzen ditu Donostiako Foruak⁴, eta bat ere ez Gasteizko Foruak. Horregatik, arlo pribatuan ohitura da aplikatzen dutena Auzitegiek araurik idatzi ezean.

Beraz, hasiera batean hiru ordena-

2. 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa (EHAA 1992ko abuztuaren 7koa, 153. alea).

3. Navajas 1975. Autore horren gainerako idazlanak, asko Gipuzkoako Foru-Zuzenbide Pribatuari buruzkoak, honako honetan bildu dira: Eusko Ikaskuntza 1993.

4. Beraien artean, testamentua egiteko askatasun osoa: ikus Leizaola 1933.

mendu desberdin daude: Donostiako Forua (kostaldeko hirietan zabaltzen joango dena⁵), Gasteizko Forua (barnealdeko hirietan zabalduko dena⁶), eta Lur Laua, non Erregearen ordezkariak agintzen duten (hasiera batean "Adelantado" eta gero "Merino" batek) eta non herriak berak sortutako ohiturak aplikatzen diren. Horrekin batera Zuzenbidea sortzeko bi sistema egongo dira (hirietan Foruaren iturri-sistema eta gainerako lurraldean ohitura) eta bi jurisdikzio desberdin (hirietan hiriko Auzitegiek funtzionatzen dute⁷, eta gainerako lurraldean Erregearen ordezkaria izango da epaile, bertako Zuzenbidea, ohiturazkoa alegia, aplikatuko duelarik).

Bestalde, kontuan izan behar da Erregeek, ordenamendu juridikoa bateratu nahian, zenbait Foru ematen dituztela, zeinak hirietako Foruen xedapen ezean aplikatzen diren; hala nola, *Fuero Juzgo*-a, *Fuero Real*-a, eta *Las Partidas*-ak. Guztiak Zuzenbide Erromatarrean oinarrituak, eta oso erabilgarriak idatzirik daudelako. Foru horiek arlo pribatuan dagoen arau-idatzien hutsunea betetzen dute. Horrela, hirietako Auzitegiek, eta erlazio pribatuetan, ohitura aplikatzen dute, baina poliki-poliki beste Foru horiek aplikatzen hasten dira idatzirik daudelako, eta ohiturak baino segurtasun gehiago eskaintzen dutelako.

Aipatu prozesuaren gailurra *Ordenamiento de Alcalá* delakoa izango da,

5. San Sebastián (1180), Fuenterrabía (1203), Guetaria (1209), Motrico (1209), Zarauz (1237), Villanueva de Oiarso (1320), Villagrana de Zumaya (1347), Belmonte de Usurbil (1371), Villarreal de San Nicolás de Orio (1379) eta Hernani (1380).

6. Tolosa (1256), Mondragón (1260), Vergara (1258), Villafranca de Guipúzcoa (1268), Deva (1294), Azpeitia (1311), Elgueta (1335) eta Villarreal de Guipúzcoa (1383). Elgoibarrek zuzenean Logroñoko Forua jasoko du (1346).

7. Ikus Navajas 1982a.

8. Gipuzkoaren sortze-prozesua ikuspegi juridikotik aztertzeko interesgarria da ikustea Navajas 1982b: 93.

1348. urtean. Erreinu guztiarentzat ematen den lehen araudia delarik. Horren ondorioz aldaketa osoa gertatzen da bi alorretan.

Alde batetik ordenamendu horrek Zuzenbideko iturrien lehentasun-sistema aldatzen du: lehenik Ordenamendu hori bera, ondoren hirietako Foruak (*Fuero Real* delakoa horietan sartutzat joko da), gero ohitura, eta azkenik Partidak. Horrela, eta gainera Ordenamenduak berak ezartzen du esanbidez bere zenbait arau Gipuzkoan ere aplikagarri izango direla, Gipuzkoan lehen iturria Alcaláko Ordenamendua izango da; eta horren arabera, Gorteetako Koadernoak eta Erregearen Pragmatikak ere aplikagarri izango dira. Legeak egiteko aukera, ondorioz, lehen herriak berak baldin bazuen ohituren bidez, orain Erregearen esku geratzen da; eta, nahiz eta ohiturak onartzen diren, arauak aplikatzerakoan nahiago izango dira arau idatzia ohiturak baino, eskaintzen duten segurtasunagatik. Horrela, lege idatzia, kontzeptzio erromanistan oinarritutakoa, ohituraren gainetik⁸ nagusitzen joango da.

Eta bestaldetik jurisdikzioa bateratu egiten du: Alcaláko Ordenamenduaren aurretik apelazioak hirietako Auzitegiek erabakitzen baldin bazituzten, orain apelazioak Erregearen Auzitegiek erabakiko dituztela ezartzen da. Horren ondorioz, eta Auzitegi horiek osatzen dituzten pertsonak unibertsita-

teetatik datozenez, non lege erromatarrek ikasi dituzten, eta kontuan izanik hirietako Foruek Zuzenbide Pribatuari buruzko arau gutxi dituztela, hiriaren Foruan ez bada ezer esanbidez esaten *Fuero Real* eta *Las Partidas*-ak aplikatuko dituzte. Horrela, epaien bidez ere eraentza juridikoa bateratzen joango da, baina lurralde bakoitzeko ohituren kontura.

Kontuan izan behar da, bestalde, Gipuzkoako Lur Lau guztia poliki-poliki hirien eskumenpean sartzen joango dela. Hori dela eta, Merinoaren eskumena gero eta murriztagoa da, bai eta bertako Zuzenbidea soilik aplikatzen den eremua ere. Baina Alcaláko Ordenamenduarekin ordenamendu juridiko guztia bateratzen da lurralde osoan.

Hori 1348. urtean gertatzen da, eta Gipuzkoa oraindik instituzionalizatzen hasteko dago. Instituzionalizazioa 1397. urtetik aurrera gertatuko da. Urte horietan Gipuzkoako Hermandadea sortzen da, eta Ordenantza batzuk garatzen joango dira; prozesua XV. mendean burutuko da, eta mende horretan zehar antolaketa juridiko-administratiboa finkatuko.

Gakoa Hermandadearen Koadernoetan aurkitzen dugu: bertan ez da Zuzenbide Pribatuko araurik jasotzen, ez 1397an (sortzen denean), ez eta ondorengo garapenetan ere (azkena 1463an). Aldiz, Bizkaian, eta antzeko egoera dagoelarik, 1452an Foru Zaharra ematen da, eta hor bai jasotzen direla Zuzenbide Zibilar buruzko arauak. Zergatik gertatzen da bereizketa hori? Arrazoi politikoa dago

tartean. Nekazal munduko jaunen eta hirien arteko borroka akordio batzuetara iritsita amaitzen dira Bizkaian eta Araban; aldiz, Gipuzkoan, hiriak nagusitzen dira, eta beren legeak ezartzen dizkiete nekazal inguruko jaun edo ahaide nagusiei, batik bat merkataritzan oinarritutako gizartea bultzatu nahi dutelako. Legeria horretan (Koadernoetan jasoa) ez da Zuzenbide Pribaturik jasotzen, eta nekazal munduko legeria, ohituran oinarritua eta nekazal jabetza mantentzera zuzendutakoa, baztertua geratzen da⁹.

Bazterketa horren ondorioz nekazal arloan jabetza kontserbatzeko arazoak izango dituzte, eta hortik etorriko dira ohitura horiek idatziz jartzeko lehen ahaleginak; zehazki, Segurako 1554. urteko Batzarrean azaltzen da lehen aldiz ohiturak idatziz biltzeko premia eta beharra. Behar hori nekazaritza garatzen eta finkatzen hastearekin batera somatzen da.

Hortik aurrera elkarjotze bat gertatzen da. Alde batetik Erreinitik datozen legeak ditugu (1505eko *Leyes de Toro*, 1534ko *Ley de Madrid*, *Nueva Recopilación* eta *Novísima Recopilación*); eta bestaldetik nekazal jabetza kontserbatzeko gipuzkoar ohiturak. Horregatik hainbat eta hainbat eskari egiten dira Gipuzkoan XVII., XVIII. eta XIX. mendeetan zehar ohiturak idatziz jartzeko, baina monarkiak, lortu duen batasun juridiko hori babesteko, ez du amore ematen.

Horren guztiaren froga 1696. urtean egiten den Foruen Errekopilazioan¹⁰ aurkitzen dugu; bertan izaera zibila duten bi manamendu besterik ez dira

9. Bi kontzeptzio juridiko sortzen dira: bata jaraunsleen artean famili jabegoa banatzen duena, eta bestea jaraunse bati ematen diona; ikus García Cortazar 1973: 292.

10. *Recopilación...* 1983.

jasotzen, bata larreei buruzkoa¹¹ eta bestea landaketen arteko distantziei buruzkoa.

Kode Zibila egin aurretik ere aipatzen zen Gipuzkoaren berezitasuna. 1839ko urriaren 25eko legearen ondorioz egiten den *Proyecto de Arreglo de la Administración Provincial, o sea, Modificación de sus fueros por la Comisión Económica de la misma Provincia*-n, 1841eko abenduaren 13koan, aurrikusten da Gipuzkoako Foru-Zuzenbide Zibila¹². Baina, Kodifikazio-Batzordea Kode zibila sustatzeko biltzen denean 1880an, Gipuzkoa kanpoan geratzen da. Kontuan izan behar da egoera politikoa ere ez dela aproposena: 1876an desagertzen da Probintziak zuen antolaketa politikoa, eta Foru-Aldundien ordean ezarritako Aldundi Probintziala ez da mugitzen bertan pre-

sente egoteko. Dena den, eta Kodea eztabaidatzeko prozesuan hainbat aldiz aipatzen da, Gipuzkoan ere bazeuden zenbait berezitasun oinordetza eta ondare familiarraren inguruan¹³.

Kode Zibila 1889an onesten denean, Gipuzkoa 12. artikulua eremutik at geratzen da¹⁴; hots, bere iturri-sistema Kodean ezarritakoa izango da: legea, ohitura eta zuzenbideko printzipio orokorrak¹⁵. Ondorioz, legearen aurkako ohiturarik ez da onartzen, eta erlazio juridiko-pribatuak eraentzeko Kode Zibila aplikatuko da.

Kode Zibila eman ondoren ere, Gipuzkoako Foru-Aldundia saiatzen da hainbatetan Gipuzkoako ohiturak idatziz jartzen, Kode Zibilaria apendize gisa eransteko. Saiakera horiek 1920-1930eko hamarkadetan egiten dira¹⁶, eta abiapuntua Eusko Ikaskuntzak

11. Cillán 1959.

12. 16 artikuluan hauxe esaten zen: «El fuero especial, el uso y costumbre sobre sucesiones y demás puntos de derecho privado, continuarán en vigor en Guipúzcoa, como actualmente se observa, en cuanto no sea contrario a las leyes hechas en Cortes desde 1834 y que en adelante se hicieren, y en este concepto los Tribunales arreglarán a él sus fallos y determinaciones hasta que tenga efecto el art. 4º de la Constitución de la Monarquía».

13. Horrela zioen Alonso Martínezek Legebiltzarrean: «No existiendo en Guipúzcoa normas de Derecho Foral Civil, sin embargo y en base a las normas castellanas, el campesino guipuzcoano mantiene indivisa su propiedad agrícola, y regula sus relaciones familiares igual que aquellos que sí tienen normas forales»; ikus Alonso Martínez 1947: 158.

14. Honela zioen artikulua horrek: «Las disposiciones de este título, en cuanto determinan los efectos de las leyes y de los estatutos y las reglas generales para su aplicación, son obligatorias en todas las provincias del Reino. También lo serán las disposiciones del título IV, libro I. En lo demás, las provincias y territorios en que subsiste Derecho foral, lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración su actual régimen jurídico, escrito o consuetudinario, por la publicación de este Código, que regirá tan sólo como Derecho supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas por sus leyes especiales».

15. Kodearen 5. eta 6. artikuluetan ezarritako iturri-sistema, gaur egun, eta 3/1973 Legea, martxoaren 17koa, dela eta, 1. artikuluan jasotzen dena.

16. «Proposición de la Comisión de agricultura para combatir la despoblación de las caseríos en Guipúzcoa, tratada en la sesión 5ª de la Diputación de Guipúzcoa el 11 de septiembre (año 1920)», «Proposición del Sr. Lafitte a la Diputación de Guipúzcoa en la 8ª sesión de 20 de julio de 1923 sobre despoblación de caseríos y acceso de colonos a su propiedad», «Propuesta hecha a la Diputación de la provincia sobre venta de caseríos en la 10ª sesión del 27 de diciembre (año 1923)», «Acuerdo de 24 de enero de 1924 de la Diputación de Guipúzcoa. 2ª sesión sobre medios para evitar la despoblación de caseríos», «Informe de los Señores D. Telesforo de Aranzadi y D. Bonifacio de Echegaray a la Comisión sobre despoblación de los caseríos reunida en la Diputación de Vizcaya, en septiembre de 1929 (Eusko Ikaskuntza)», «Acuerdo de la Diputación de Guipúzcoa relativo a un anteproyecto de Apéndice al Código Civil sobre la propiedad rural en Guipúzcoa. Sesión 2ª del 29 de noviembre (año

1918an Oñatin antolatutako Kongresuan ateratako ondorioetan dago¹⁷. Asmo horiek porrot egiten dute, batik bat arrazoi politikoengatik.

Urte horietatik honantza gipuzkoar ohiturak idatziz jartzeko ez da inongo ahaleginik egin. Zenbait autore espainiarrek ere egoera hori jaso dute beren idazkietan¹⁸, nahiz eta praktikan, nekazal errealitatean, gero eta nekezago mantendu den ohitura. Gaur egun hil zorian dagoela esatea ez da gehiegikeria, seguruenik jendearen ezjakintasuna dela medio eta ez erabilgarritasuna galdu duelako.

Laburtuz esan genezake ohiturazko Zuzenbide hartatik bizirik iraun duen praktika baserriaren batasuna lortzera zuzendutakoa izan dela¹⁹: hasiera

batean maiorazgoaren bidez (Arpal 1979: 195) egiten dena, gero hobekuntzen bidez eta azkenik Kode Zibileko 1.056. artikulua erabiliz egingo da batik bat, kontuan izanik, Kode Zibilerate itzultze oinetxetarra ere ezartzen dela ezkontzako hitzarmenetan ezkontza seme-alabarik gabe desegiten den kasurako.

Gipuzkoako Foru Pribatuaren edukia

Ohitura horiek zeintzuk diren jakiteko ere, Navajas Laporteren tesian frogatutakoa laburbilduko dugu²⁰. Aipatuko ditugun erakunde guztiak garai bakoitzean indarrean dagoen legeari egokitzen joan dira²¹. Ondorioz, eta aipatu dugun bilakaera-

1929)», «Proyecto de Decreto-Ley de la Comisión de Agricultura, sometido a la Diputación de Guipúzcoa, referente a un anteproyecto de Apéndice al Código Civil que regule la propiedad rural de Guipúzcoa (presentado por la Comisión de Agricultura a la Excm. Diputación en sesión de 6 de septiembre de 1929)». Nekazaritza Komisioaren bilera-aktetan ere hainbat erreferentzi aurki daitezke urte hauetan baserriaren egoerari buruz, eta zehazki baserriaren zatiezintasuna aipatzen da 1920ko urtarilaren 9ko eta 1923ko abenduaren 27ko bileretan. Ikus Domínguez y Barros 1931: 273.

17. Primer Congreso de Estudios Vascos, 1919-1920. Bertan ikus «Conclusiones jurídicas y sociales», 306 eta hurrengo orrialdeak, bereziki 7., 10. eta 13. ondorioak.

18. Gehienetan erreferentzi hau emanaz: Jado y Ventades 1923, Uriarte Berasategui 1935: 755.

19. Tolosako Udalak honela erantzun zuen nekazaritzari buruzko galdeketa baten aurrean: «acuden al préstamo, especialmente los propietarios, porque por no ser susceptibles de división las fincas, pagan en metálico su participación a sus coherederos»: *La crisis agrícola...* 1887: 67. «La elección del hijo para casa es una costumbre arraigadísima en el hogar rural guipuzcoano, por cuya virtud el padre o la madre en sus testamentos o en el contrato matrimonial eligen al hijo que consideran más apto para seguir la labranza del caserío, que aunque lo llevan en arrendamiento, suelen sucederse en él distintas generaciones, y a ese hijo le hacen donación del caserío o lo declaran heredero; a los demás hijos, si existen otros bienes independientes del caserío y del ganado, les dejan esos bienes; de lo contrario, disponen que el “hijo señalado para la casa” les pase algún tanto o nada, según las circunstancias. A esta particularidad se debe, principalmente, el que no exista el problema de la tierra en Guipúzcoa, por hallarse equitativamente repartida, hasta el punto de que el mayor terrateniente de la provincia apenas si llega a pagar más de tres mil pesetas de contribución territorial por sus caseríos» (Leal 1936: 122). Erreferentzia: Fuenmayor 1948: 897. Gallastegui Artiz eta Ruigómez Velascok 1942an honako hau proposatzen dute baserriari buruz: «legislando en su beneficio para lograr que los derechos de sucesión se disminuyan en caso de testamentarias de fincas, que constituyendo “Unidad Económica” se transmitan sin división; concediendo rebajas en la tributación y otras ventajas».

20. Laburpen hori berak egin du: Navajas 1977: 311.

21. Mende honetako egoera bereziki aztertzeko ikus Echegaray 1950: 81 eta 1969: XIII, 273-278, 582-586, XIV, 27-60; Navajas 1975: 203; Araluze y Villar 1970. Gainera, ohitura horien praktika adierazi zen Euskal Antropologiari buruzko II. Astean (1971: 131). Bertan Arregui Gil epaileak baserriaren batasunari eusteko ohitura baieztatu zuen, eta Cillán Apalategui irakaslearen ustez bost figura juridiko daude ohitura horietan: larre-komunitate forala, ezkontzako ondasunen eraentza, oinetxekotasun-printzipioa, *Senado Consulto Veleyano-ri* uko egitea eta testamentugile berak bere animaren aldeko jaraunsletak.

ren arabera, hiru epealdi desberdin antzeman daitezke bakoitzaren garapenean: Toroko Legeetararte, Kode Zibila argitaratu bitartean, eta orduz geroztik gaurdaino. Lege bakoitzaren arabera, ohiturari eusteko modu desberdinak erabiliko dira, baina beti emaitza berbera lortuz.

Lehena etxea zatitu gabe transmititzekoa²²; horrela etxearen ustiapenarekin seme-alaba batek jarraitzen du. Lehenengo epealdian hori ezkontzako hitzarmenean egindako dohaintza bidez lortzen da, eta ezkontide zaharrek usufuktua gordetzen dute. Bigarren epealdian, eta 1534ko Madrilgo Legearen ondorioz, debekatu egiten zaie seme-alabei hobekuntzak egitea dote eta ezkontza bidez, eta seniparteak ordaintzea eskatzen zenez, etxea ezkontzako hitzarmen eta testamentu bidez transmititzen da, gauza zehatzean hobekuntza²³ eginez. Azken epealdian, etxea Kode Zibileko 1.056. artikulua²⁴ aplikatuz transmititzen da gehienetan. Testamentua egiteko askatasuna ikusten da

ideia horretan²⁵, Gipuzkoan hasiera batetik dagoena eta Oñatiko biztanleek, Gipuzkoatik at egonik, beraien-tzat ere eskatzen dutena Gipuzkoan eta Bizkaian dauden ohiturak alegatuta, aurrerago ikusiko dugunez.

Bigarrenik itzultze oinetxetarra: ondasunak jatorria duten familiari lotuak daude, eta ondasun horiek ezkontzara ekarri dituen hiltzen bada oin berebean oinordekorik egon gabe, ondasunak oinetxera itzuliko dira; ezkontzako hitzarmenetan ezartzen da, eta XIX. mendeko erdiralderarte irauten du. Auzitegi Gorenak, hau baliozkoa izan dadin, Toroko VI. legeak eskatutako formaltasun bereziak betetzea eskatzen du. Horrela, erakunde hori lege-xedapen batean aurrikusia egotea beharrezkoa da; Donostiako Foruan aurrikusia dago²⁶, eta, beraz, baliozkoa da bere barrutian. Baina Donostiako Forua aplikatzen ez den lekuetan ere itzultze oinetxetarra ohitura bidez onartzen da.

22. Gehienek onartzen dute arrazoi ekonomikoetan oinarritzen dela; halere batzuen ustez beste arrazoi batzuk ere badira: «hay que tener en cuenta, por otra parte, cómo normas que hoy consideramos trascendentes para la conservación del patrimonio agrícola en la familia, tal, por ejemplo, la libertad de testar foral, no fueron dictadas en su época, tanto para proteger aquél como por otros motivos, el de mantener el esplendor nobiliario y el de permitir, a efectos democráticos, que los pelendrines imitaran a los grandes señores» (Ballarín Marcial 1978: 17, 20). Kontrako iritzia du Ballesteros Hernándezek, zeinak uste du nekazariak zituzten arrazoiak eta famili-nagusiek zituztenak etxeari zatitu gabe eusteko guttiz desberdinak zirela (1990: 285).

23. *Mejora de tercio y quinto*-ren bidez; seniparte 4/5 zen eta gainerako 1/5 askatasunez xedatzekoa; senipartearen 1/3 zen hobekuntza. *Tercio*-k 4/5ren herenari egiten dio erreferentzia; *quinto*-a askatasunez xedatzeko zatiari dagokio eta berez ez da hobekuntza esanahi hertsian. Zergatik aipatzen da orduan *quinto* hori? Toroko Legeen aurretik *quinto* hori ezin zitzaielako senipartedunei eman, normalean Elizari zuzendutakoa baitzen; horregatik, badaezpada, eta nahiz eta Toroko Legeek debeku hori kendu, aipatu egiten da, horrela zalantzarik gabe ahal den guztia senipartedun bati emateko.

24. 1.056. artikulua: «Cuando el testador hiciere, por acto entre vivos o por última voluntad, la partición de los bienes, se pasará por ella, en cuanto no perjudique a la legítima de los herederos forzosos. El padre que en interés de su familia quiera conservar indivisa una explotación agrícola, industrial o fabril, podrá usar de la facultad concedida en este artículo, disponiendo que se satisfaga en metálico su legítima a los demás hijos».

25. Hori dio Blasco de Imazek (1966: 24).

26. Ikus Díez de Salazar 1980: 275.

Hirugarrena, dotea emateko ohitura: ezkongaiaren gurasoek dirutan edo ondasunetan etxera ezkontzen den beste ezkongaiari emandako kopurua da, ezkongai horrek jasotzen dituen etxearen zamei erantzuteko balio duelarik. Zama horiek gainerako senideen seniparteak dira (etxean geratzen denak eman beharrekoak). Dotea, beraz, seniparteak ordaintzeko erabiltzen da. Horregatik, 1534 Madrilgo Legearen kontra hainbat aldiz protestatu da, eta ohiturak idatziz jartzeko eskatu ondorengo urteetan Kode Zibila argitaratu bitartean; lege horrek dote eta ezkontza bidez seme-alabak hobetzeko debekua ezartzen duenez, seniparteak modu horretan ezin dira ordaindu.

Laugarrena Famili-komunitate ekonomikoa sortzekoa: etxera ezkontzen denean seme-alaba bat, etxe horretan egoera berezia sortzen da, bertan etxearen ustiapena emateko bi bikote biltzen baitziren. Hori arautu egiten da, normalean ezkontzako hitzarmenen bidez, eta bikote bakoitzaren egoera zehaztu (eskubideak eta betebeharrak), horrela sozietate familiar bat sortuz. Eta sozietate familiar horren berezitasun nagusia hauxe izango da: parte hartzen duen kideetako bat hiltzean, sozietatea ez da desegiten, ez eta hildakoaren eskubideak bere oinordekoei pasatzen ere, baizik eta eskubide guztiak hildakoaren alargunarengana pasatzen dira alargun-egoeran jarraitzen duen bitartean.

Eta azkenik Ahaide-Kontseilua: sozietate familiar hura desegiteko erabiltzen den erakundea da. *Fuero Real* indarrean egon den bitartean ez du mugapenik izan; ezkontideetako bat alargun geratzen denean eta

seme-alaben tutoretzarekin, seme-alaben ondasunen inbentarioa aurkeztu behar die hildakoaren ahaideei. Garai horretan onartzen da baita ere komisario bidez egindako testamentua (hirugarren batek finkatzen du zein seme-alaba geratuko den etxearekin); Toroko Legeekin figura hori desagertu egiten da eta kausatzailearen borondatea beteko duen pertsona bezala geratuko da, Kode Zibilerarte (non albazeak beteko duen horren funtzioa). Frogatzen dena behintzat da nekazal jabetza familiarraren kontzeptu kolektiboa dagoela gipuzkoar Zuzenbide Pribatuan.

Erakunde horiek gutxi edo gehiago zerikusi handia dute Pirinio inguruetako legeriekin. Zain edo erro berberetik datozela guztiak somatzen da, nahiz eta gero bakoitzaren bilakaera ezberdina izan eta batetik bestera ezberdintasunak sortzen joan.

Horrez gain, bai barne-herrietan, bai eta itsas herrietan, zenbait erakunde juridikoren bidez herriko biztanleen artean sortu den elkartasuna ere aipatu behar da: auzolana (batik bat bideak konpontzeko), suarua (suteen kalteak estaltzeko), kofradiak (elkar laguntzeko)... Aztertzeke daude, gainera, nekazal munduan zabalkuntza berezia izan duten hainbat kontratu: akurapen-mota desberdinak, gasaila, ondazilegiak...

Oñatiren kasua

Oñati Gipuzkoako Hermandadean 1845. urtean sartu zen²⁷. Bitarte horretan, konderrria denez, eraentza juridiko propio eta bereziaz eraentzen da. Beraien Zuzenbide Zibilari dagokionez,

27. Ikus Oñatiren integrazioari buruz Zumalde 1957: 200.

1477. urtean idazten den Ordenantza (ikus Ayerbe 1985: 328) da aipatze-koa, zeinaren arabera gurasoek beren ondasunak seme-alaben artean nahi zuten bezala banatzeko aukera zuten. Ordenantza hori Errege Katolikoek 1485ean onartzen dute, eta ondoren Carlos I.ak berretsi 1537an eta Carlos III.ak 1761ean.

Ordenantzak berak dioenez, Oñatin ondarea seme-alaben artean zatitzen da, ustiategiak kalte eta hondamen bidean jarrita, guztiz zatituak geratzen direlako. Horregatik, Bizkaian eta Gipuzkoan dagoen moduko legea eskatzen dute, non, esaten denez, Oñatin egiten denaren kontrako ohitura duten, hau da, ustiategiei zatitu gabe eusteko parada ematea. Bertan, Bizkaia eta Gipuzkoa parekatu egiten dira ohitura horretan; ohitura hori Gipuzkoan ez dago idatziz jasoa, baina bai Bizkaian 1452ko Foru Zaharrean, non ezartzen den oinordeko bati ondare guztia emateko besteak bazter zitezkeela zerbait emanek, asko edo gutxi. Hori bera esango dute Errege Katolikoek Oñatiko Ordenantza hori onartzen dutenean 1485eko urtarrilaren 6an, alegia, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten denaren parekoa izango dela. Ordenantza horren arabera, eta maiorazgoaren bidez, beren ondasun- ez xedatzeko askatasuna ezartzen da.

Horrez gain, eta ohitura moduan, lurralde horretako protokoloetan isladaturik geratu denez, oinetxekotasunaren printzipioa ere aplikatua izango da, Gipuzkoa osoan egiten denaren modura, ezkontzako hitzarmenetan.

Hori horrela izanik, eta tratamendua

berezia izanik, testamentua egiteko askatasunari zegokionean, Oñatik lege propioa eta idatzia duela esan daiteke. Baina, XIX. mendean, eta jadanik Gipuzkoaren barruan egonik, Gaztelako maiorazgoaren islada besterik ez dela uste izaten da, Ordenantza beraren eta Erregeek egindako berrespe- nen artean ezadostasun bat dagoelako terminoetan (ikus Uriarte Lebario 1928: 279), eta ez foru propioa; ondorioz araudi hori deuseztua geratzen da legeria amankomuna aplikatzerakoan. Orain, errakuntza hori dela eta, Gipuzkoa osoan ez dago Foru-Zuzenbide Zibil idatzirik; egoera bestelakoa izan zitezkeen arau horri eutsi izan balitzaio, eta gutxienez, Araban gertatzen den moduan Aiarako Foruarekin, Oñatiko herrian arau propioak izango genituzkeen.

Kodea eta lege bereziak

Praktikan ohitura horiek mantentzen diren bitartean, aldi berean, eta nekazal ustiategiaren zatiezintasuna aldarrikatzeko, Zuzenbide amankomunean ere zenbait xedapen ematen dira, noski, Gipuzkoan ere aplikagarri direnak.

Kodean bertan garrantzi handikoa izan da 1.056. artikulua ustiategi- iraupena lortzeko. Bere aplikazio- eremua ez da nekazal mundura bakarrik mugatzen, industri munduan ere aplikagarri baita. Azken finean, Foru Zuzenbideetan dagoen kezka- ri Kodeak ere nolabaiteko erantzuna ematen dio, egokiagoa edo desego- kiagoa, baina aukera batzuk behintzat irekiak geratzen dira²⁸. Agian eragin gehiago izango luke artikulua horrek testamenturik gabeko oinordetzei ere

28. Zehazki nekazal ustiategiei begira eta Kodeak egiten duen arauketaren balioa erakutsiz ikus Mozos 1974: 523; 1977; Fosar 1963: 377; 1971: 225.

aplikatu izango balitzaie.

Halere, eta nekazal munduan, ustia-tegiak babesteko legeria berezia eman da. Prozesu horri “deskodifikazioa” deitu izan zaio, azken finean, eta Kodean bertan jasotako oinarritzko printzipioen kontra, Foru-Zuzenbideek jasotako erakundeetara jo delako eta arau administratiboak ere harreman juridiko pribatuetan sartzen hasiak direlako (Urrutia 1990: 138).

Legeria berezi horretan aipatzekoak dira lege bi: 118/1973 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Nekazal Erreforma eta Garapenari buruzkoa²⁹, eta 49/1981 Legea, abenduaren 24koa, Nekazal Ustiapen Familiarraren eta Nekazari Gazteen Estatutuari buruzkoa³⁰. Azken lege horretan batik bat, nekazal ondare familiarra babesten da eta oinordetza-arau bereziak ezartzen dira³¹.

Gaur egun Nekazal Zuzenbideak daraman zentzuaren printzipioak eta Foru-Zuzenbidekoak guztiz bat datoz, doktrina ugarik ikusi ahal izan duenez³².

Jurisprudentzia

Auzitegi Gorenak, Kode Zibila eman

aurretik, bi auzi erabakitzeo aukera izaten du Gipuzkoako ohiturei buruz, 1859ko abenduaren 19ko eta 1866ko apirilaren 28ko epaien bidez. Biak itzultze oinetxetarrari³³ buruzkoak dira, normalean ezkontzako hitzarmenetan ezartzen direnak. Bietan, baliozkoa dela defendatzeko, hori Gipuzkoan jarraitzen den ohitura zaharra dela esaten da. Lehenengo epaian ez da onartzen itzultze oinetxetarra, hauxe argudiatuta:

que la costumbre en que se ha pretendido sostener la eficacia del pacto de reversión no está apoyada en disposición alguna foral de Guipúzcoa, ni reúne las circunstancias exigidas por las leyes 5ª y 6ª, tít. 2º, de la Partida 1ª, invocadas en apoyo del recurso, para que pueda prevalecer sobre la ley general acerca de las sucesiones intestadas, pues no se ha justificado que dicha costumbre tuviese la aprobación del señor de la tierra ni que se hayan dado juicios sobre ella.

Beraz onartzen da ohitura hori beti ere esanbidez Toroko VI Legeari uko egiten zaiola ezartzen bada, eta Foruren batean oinarritzen bada (esaterako Donostiako Foruak onartzen zuen itzultze oinetxetarra). Bigarren epaian, aldiz, onartu egiten da esanbidez uko egin zitzaiolako Toroko VI Legeari³⁴. Dena den, Kode Zibila agertzen de-

29. BOE: otsailaren 3a.

30. BOE: 1982ko urtarrilaren 11a.

31. Mozos 1982; Ballesteros 1982: 1031; Cuenca 1983: 415; Vattier 1983: 871.

32. López Jacoiste 1965: 483; Vallet de Goytisolo 1964: 107 eta 1965: 211; Paz Ares 1967: 46.

33. «el pacto de reversión no es otra cosa que una renuncia de la sucesión que la ley concede al ascendiente más próximo, respecto de su descendiente» (1866ko apirilaren 28ko epaia).

34. Toroko VI. Legea: «Los ascendientes legítimos, por su orden y línea derecha sucedan ex testamento et ab intestato á sus descendientes, y les sean legítimos herederos como lo son descendientes á ellos en todos sus bienes de qualquier calidad que sean, en caso que los dichos descendientes no tengan hijos descendientes legítimos, ó que ayan derecho de les heredar: pero bien permitimos que no embargante que tengan los dichos ascendientes, que en la tercia parte de sus bienes puedan disponer los dichos descendientes en su vida, ó hacer qualquier ultima voluntad por su alma, ó en otra cosa qual quisieren: lo qual mandamos que se guarde, salvo en las ciudades, villas y lugares, do segun el fuero de la tierra se acostumbran tornar sus bienes al tronco, ó la rayz á la rayz.»

nean, itzultze oinetxetarra guztiz desagertzen da Gipuzkoan, Kode Zibileko arauei ezin zaielako uko egin, eta praktikan jartzeko beste inolako modurik ez zelako aurkitu.

Ondoren, eta jadanik doktrinan behintzat onarturik Gipuzkoan ez zela Zuzenbide foralik (nahiz autore batzuek ondare familiarra zatitu gabe mantentzeko ohitura badela arrezagutu), beste epai batzuk eman zituen Auzitegi Gorenak: 1896ko abenduaren 28koa eta 1899ko azaroaren 23koa. Kodeaz geroztik, eta etxearen zatiezintasunarekin lotuz, eztabaida 1.056 artikulua inguruan ibiliko da³⁵.

Iruñeko Auzientzia Territorialak ere gaiari heltzeko aukera izan du urte batzuk beranduago beste egoera batzuetan: 1969ko azaroaren 25eko epaia eta 1970eko azaroaren 10ekoa. Kasu horietan ere zatiezintasunaren ohiturari eutsi nahi zaio modu batera edo bestera, baina Auzitegiek beti, nahiz arrezagutu ohitura hori badela, legearen aplikazio hertsia egiten dute.

Erregistro eta Notaritzako Zuzendaritza Orokorrak gaia ukitzeko aukera izan du honako ebazpen hauetan: 1905eko abenduaren 4koa, 1919ko abenduaren 12koa, 1917ko maiatzaren 29koa, 1921eko martxoaren 9koa eta 1925eko uztailaren 23koa. Azken kasu horretan, familiburua hil eta

horren testamentuari jarraituz, alba-zeak partizioa egiterakoan hobekuntzaren onura zuenari ematen dio base-ria, gainerakoei senipartea dirutan emanez. Jabetza-Erregistroko ardura-dunak ezin dela inskribatu dio, zeren bere ustez albazeak ez baitauka horretarako ahalmenik. Horren aurka besteak beste, Gipuzkoan jarraitzen den ohitura gauzak horrela egitekoa dela alegatzen da, baserriaren batasunari eusteko. Azkenik, hori defendatzen dutenei arrazoia ematen zaie, beste arrazoen artean honako hau agertzen delarik:

Considerando que también robustecen la afirmación anterior, en primer lugar, las circunstancias del caserío vasco, que, según la Resolución de este Centro de 3 de octubre de 1924, es una explotación agrícola familiar, de régimen foral antiguo, cuya constante indivisión, transmisión íntegra y perpetuidad de arrendamiento la aproximan a un patrimonio indivisible, y en segundo término, la autorización concedida por el último párrafo del citado artículo 1.056 al padre que en interés de su familia quiera conservar indivisa una explotación agrícola, para disponer que se satisfaga en metálico su legítima a los demás hijos.

Garrantzitsuena duela hamar urte Auzitegi Gorenak 1984ko uztailaren 12an emandako epaia³⁶ dugu. Bertan, gipuzkoar zuzenbidearen berezitasuna

35. Arazoa zein zen, honako lerroalde hauetan ikusten da: «que el contrato matrimonial celebrado por la escritura de 7 de febrero de 1877 es conforme a la costumbre del país, por la que se casa algún hijo para vivir con los padres, formando lo que se llama sociedad de familia, y disponiendo éstos que a su muerte adquiera dicho hijo los bienes, con la obligación de la sociedad, o de los que sobrevivan de ella, de pagar determinada cantidad a los otros hijos en concepto de pago de sus legítimas, y el art. 1.287 del Código Civil exige se interprete el contrato de referencia según dicha costumbre; y que como los hijos no mejorados suelen recibir esas legítimas anticipadamente y ausentarse a países remotos, resultaría, de aceptarse la doctrina del Registrador, que se cerraría el registro a la propiedad rural, puesto que ni es de hecho posible contar con su asentimiento al morir sus padres, ni pueden hacer renuncia al ausentarse, porque se trata de herencia futura y lo prohíbe el art. 816 del Código Civil» (1901eko martxoaren 14ko Erregistroen Zuzendaritza Orokorraren Ebazpena).

36. Revista Aranzadi de Jurisprudencia: 3944/1984.

onartzen da³⁷. Epai horretan Auzitegi Gorenak Navajas Laportek bere tesian baieztatutakoa onartzen du. Alegia, Gipuzkoan erlazio zibilak arautzeko bi ordenamendu desberdin egon direla bizirik: bata Auzitegiek aplikatzen duten Kode Zibila, eta bestetik zenbait erlazio arautzeko praktikan erabiltzen zen bertako Zuzenbidea. Hori epai horretatik ondorioztatzen da, zeren eta baliozko-tzat jotzen du Gipuzkoan “oinordetza-ituna”³⁸, nahiz hori Kode Zibileko 1.271.2³⁹ artikuluan ezarritakoaren aurka joan. Hori onartzen den heinean, esan daiteke ez dela Kodearen iturri-sisteman barnean dagoen ohitura, zeren ohitura legearen kontrako baldin bada ez da onartzen. Aldiz, kasu horretan legearen kontrako ohitura onartzen da, eta baliozkotzat jotzen da arrazoi bategatik: Kode Zibilaz gain aplikagarri den ordenamendu

zibil gipuzkoarra onartzen delako.

Gipuzkoako Foru-Zuzenbide Zibila: 147. artikulua

1978ko Konstituzioak legeria zibilari buruzko eskuduntza 149.8. artikuluan⁴⁰ finkatzen du. Konstituzioaren barruan kontutan hartzekoa da baita Lehen Xedapen Gehigarrian⁴¹ jasotzen dena, non eskubide historikoak anparaturik geratzen diren.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Estatutuak ere Zuzenbide Zibilari buruzko eskuduntza aipatzen du 10.5. artikuluan:

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak ondoko gaiei dagozkienean kompetentzia eskusiboa du: 5. Euskal

37. Epai hori komentatuz ikus: García Cantero 1986: 327; epaiari buruzko iruzkina egiten du autore horrek ADCean, 1984, 786. orrialdea; Arechederra 1986: 87, eta RDN, uztaila-abendua 1986, 7. orrialdea.

38. «...ya que propiamente las combatidas no son donaciones puras en perjuicio de la legítima de las demandantes-recurrentes, sino que ofrecen la diferente naturaleza que les resulta de las escrituras que las instrumentan pues, en efecto, con antecedente en una sociedad o mancomunidad a uso del país que ... evidencia ... que las fincas no fueron donadas puramente sino más bien aportadas por los causantes padres de los litigantes a otra sociedad familiar en la escritura de 1951 la que se denomina de constitución de sociedad familiar y donación y de la cual son estipulaciones ...; y haciéndose constar que mientras no resulte de documento auténtico la separación de las partes de la sociedad familiar deberá entenderse subsistente ésta y en pleno vigor la donación realizada...».

39. 1.271.2. artikulua: «Sobre la herencia futura no se podrá, sin embargo, celebrar otros contratos que aquellos cuyo objeto sea practicar entre vivos la división de un caudal conforme al artículo 1.056».

40. 149.8: «El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: 8ª Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan. En todo caso, las reglas relativas a la aplicación y eficacia de las normas jurídicas, relaciones jurídico-civiles relativas a las formas de matrimonio, ordenación de los registros e instrumentos públicos, bases de las obligaciones contractuales, normas para resolver los conflictos de leyes y determinación de las fuentes del Derecho, con respeto, en este último caso a las normas de derecho foral o especial».

II. Errepublikako Konstituzioaren 15. artikulua: «Corresponde al estado español la legislación, y podrá corresponder a las regiones autónomas la ejecución, en la medida de su capacidad política, a juicio de las Cortes, sobre las siguientes materias: 1ª Legislación penal, social, mercantil y procesal, y en cuanto a la legislación civil, la forma del matrimonio, la ordenación de registros e hipotecas, las bases de las obligaciones contractuales y la regulación de los Estatutos, personal, real y formal, para coordinar la aplicación y resolver los conflictos entre las distintas legislaciones civiles de España. ... 2ª Legislación sobre propiedad intelectual e industrial. ...».

41. D.A. 1ª: «La Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales. La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía».

Herria osatzen duten Herrialde Historikoen Zuzenbide Zibil Foral eta bereziaren –idatzi nahiz ohizkoaren– kontserbazio, aldatze eta bilakaera, bai eta beraren indarraren lurralde-barrutiaren finkapena ere⁴².

Estatutuan kontuan hartu beharrekoak dira, gai honekin erlazionatuz, 13.1. artikulua⁴³, 14.1. artikulua⁴⁴ eta 21. artikulua⁴⁵. Bide horretatik beraz legalki Gipuzkoako Foru Zuzenbide Zibila kontserbatzeko, aldatzeko eta garatzeko aukera dago.

Eskuduntza hori izanik⁴⁶, eta hamahiru urte beranduago⁴⁷, Euskal

Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea onetsi da⁴⁸. Eta hor, Gipuzkoako Foru Zibilari buruz 147. artikulua haxe dio:

1. Baserriaren eta familiaren ondasunen antolaketari buruzko ohitura zibilen indarra aitortzen da, (eta) ohiturok Eusko Legebiltzarreko legearen bidez eguneratu beharko direla. 2. Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru-Erakundeek bultzatu eta sustatu egingo dituzte Lurralde horretako ohiturazko Zuzenbidea gaur egunean duen indarraren araberrako behin-betiko idazkeraz hornituta gera dadin lortzeko lanak⁴⁹.

42. II. Errepublikako Estatutua askoz ere zabalagoa zen: 2. artikulua. «Corresponde a la competencia del País Vasco, de acuerdo con los artículos 16 y 17 de la Constitución de la República, la legislación exclusiva y la ejecución directa en las materias siguientes: b) 1º Legislación civil en general, incluso en las materias reguladas actualmente por el Derecho foral, escrito o consuetudinario, y el registro civil. Todo ello con las limitaciones establecidas en el número 1º del artículo 15 de la Constitución».

43. 13. 1. artikulua: «Justizi administrazioari dagokionez, justizia militarra alde batera utzirik, Euskadiko Komunitate Autonomoaren esku egongo dira, bere barrutian, Justizi Boterearen eta Justizi Boterearen Kontseilu Nagusiaren Lege Organikoek Gobernuari ezagutu, erreserbatu edo gainjartzen dizkion ahalmenak».

44. 14.1. artikulua: «Euskal Herriko jurisdikzio organoen kompetentzia ondoko hauetara hedatzen da: a) Zibil mailan instantzia eta gradu guztietara. Euskadiko Zuzenbide Zibil Foralaren gaietan kasazio eta berrikusketazko errekursoak barne direlarik ... e) Jabegoaren Erregistroetan sarrera eduki behar duten Euskal Zuzenbide bereziaren dokumentuen kalifikapenari buruzko errekursoetara».

45. 21. artikulua: «Bere kompetentzi eskusiboetako gaietan Euskal Herriak duen eskubideak (zuzenbideak) lehenetsun osoa izango du beste edozeinen ondoan eta honen ezean bakarrik aplikatuko da Estatuaren eskubidea (zuzenbidea)».

46. Oro har, eskuduntza horri buruz ikus *Primer Congreso...* 1983.

47. Elaborazio-prozesuari buruz ikus: Urrutia 1990: 121; Arrue & Martín Osante 1991a: 1277; 1991b: 311.

48. Konstituziokontrakotasun-helegitea (zk. 2685/92, BOE 1992-11-18) jarri zen legearen artikulua hauen aurka: 6 (bigarren lerroaldeko azken intzisoa), 10, 11, 12, 13, 14, 30, 94, 102.2, 123.2 eta 3, eta 132; atzera jo eta auzia utzi egin zuen gero Gobernuko Lehendakariak (BOE: 1993ko abenduaren 14). Beraz, 147. artikulua ez zen eztabaidatua izan.

49. Zioen adierazpenean, artikulua horren oinarria azaltzeko honakoa esaten da: «Idatzizko legerik ez bazuten ere, gipuzkoarrek aintzinatik mantendu egin zituzten euren erakundeak, Bizkaikoen eta Arabakoen oso antzerakoak zirenak. Erakundeok bizirik irautea lortu zuten idatzizko Zuzenbidearen erasoari gehiago eginez, baina zailtasun haundiekin, batez ere 1348.eko Alcaláko Ordenamenduaz geroztik. Gipuzkoako Batzar Nagusiek behin eta berriz eskatu zuten ondorengotza Bizkaiko kasuaren antzera arautzea (1554.eko Segurako Batzarretatik hasita). 1841.eko Foruak egokitzeko egitasmoan ere eskatu zuten Gipuzkoak bere berarizko Zuzenbide Zibila aitortzeko, baina alferrik. Orainsuago ere berriro eskatu izan da gauza bera *Eusko Ikaskuntza Elkarte*-ren bidez, 1918.ean eta 1930.ean, orduan ere jaramonik ez zitzaiola egin.

Nahiz eta arazoak gero eta larriagoak izan, gipuzkoarrek, baserrialdean, mantendu egin zuten, ordea, euren ohitura-araudia. Etxea banandu gabe eskualdatzea, tronkalera itzultzeak, ezkonsaria edo familiak osatzen zuen ekonomi batasuna bezalako gaiak batzen dira araudi horretan, Alvaro de Navajas gipuzkoar legegile ospetsuak agertu zuenez.

Hori Gipuzkoari eskainia dagoen liburuko artikulu bakarra da. Horrez gain, legearen aurre-tituluko artikuluak aplikagarri zaizkio, non aipatzen diren Foru-Zuzenbidearen iturriak⁵⁰.

Azkenik, eta Gipuzkoako Lurraldeak Zuzenbidea sortzeko aukera galdu ondoren hasiera batetik (eta Euskal Herri osoak beranduago), gaur egun, eta mugapenak ere badaudela jakinik, Zuzenbide Zibila sortzeko organoak daude Euskal Herrian. Horregatik, Autonomi Estatutuaren barnean, bertako errealitate sozialean dauden kontzeptzio juridikoak, eta Herri hone-takoak direnak, arauen bidez biltzeko une aproposa da. Oraindaino aukera hori ez da eman; legeak kanpotik etor-tzen ziren, eta etortzen dira, kanpoko

kontzeptzio juridikoekin. Hemendik aurrera, ordea, zenbait arlotan, eta nahiz eta mugak egon, euskal mun-duan dauden kontzeptzioak jasotzeko badago aukeraren bat, kontutan izanik beti ere erakunde juridikoek gizakiaren zerbitzura egon behar dutela. Eta erronka horri, hain zuzen ere, egin behar zaio aurre.

Lan horretan sartu aurretik, eta egoera berri baten aurrean gaudela ikusirik, eskuduntzaren arazoa argitze-ko, zenbait Kongresu eta lhardunaldi egin dira Euskal Herrian. Gehienak Zuzenbide Publikoari zuzenduak ego-nik ere, arlo pribatua ukitzen dutenen antolaketa ere ekin zaio, eta esan dezakegu ondorio interesgarriak atera direla saio horietatik⁵¹.

Edonola ere, zailtasun garrantzitsuak daude ohituraren indar-esparrua zehazteko ezeze, bere edukia argiro finkatzeko ere, Bizkaiko, Nafarroako edo Arabako legeekiko zer den baterakoa eta zer berezia finkatzeko, horretarako Araba eta Bizkaiari buruz mendearen hasieran egin ziran ikerketen antzerakoak burutu egin beharko direla.

Bitartean, zuhurtasunez jokatzeari ondo eritzita, ez dira definizio zehatzak egin eta lege hau ez da Gipuzkoako ohiturazko Zuzenbidea egon dagoela aitortzetik haraindi joan, berori legez arautzea gerorako, autonomi mailako eta foru-erakundeek eragin beharko dituzten ikerketen ondorioak aztertzen direnerako utzi».

50. 1. artikulua: «1. Lege honetako aginduek, ohiturak eta bere tradizioaren arauera mamitzen duten zuzenbide-oinarri orokorrek osatzen dute Euskal Herriko Lurraldeen Foru-Zuzenbide Zibila. 2. Nabarmena ez den ohitura frogatu egin beharko da»; 2. artikulua: «Epaigintzak osatuko du Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila, berori ulertu eta ezartzerakoan Euskadiko Zuzentza Auzitegi Nagusiak eman ditzan jarraituzko erizpideekin» (Espainierazko testuan «Bizkaiko» hori ez da agertzen; beraz, desadostasun bat dago); 3. artikulua: «1. Foru-arau ezargarririk ez balego, Kode Zibila eta gaineran-tzeko ezarpen orokorreko erabakiak ezarriko lirateke zuzenbide osagarri bezala» (*supletorio* 'Zuzenbide osagarria' da?). «2. Zuzenbide osagarriaren ezarpena Foru-Zuzenbide Zibilaren oinarriei egokitu beharko zaie»; 4. artikulua: «Euskal Herriko Foru-Zuzenbidean tradiziozko den askatasun zibilaren oinarriaren arauera, legeak esku-emaile direla jotzen da eta eurotatik datozen eskubideei uko egitea baliozkoa izango da, beti ere herriaren onaren zein gizarte-erabidearen aurkakoa ez bada eta beste inori kalterik ez badio egiten».

51. Kongresuak eta lhardunaldiak zeinetan Euskal Zuzenbide Zibilari buruz hitz egin den:

- I CONGRESO DE ABOGADOS ESPAÑOLES, Donostia, 3-8 septiembre 1917, *Comisión sexta. Derecho Foral Civil*. Aktak Gipuzkoako Abokatu-Kolegioan kontsulta daitezke.

- CONFERENCIAS EN EL ATENEO GUIPUZCOANO (1918-19. urteetan Euskal Herriarentzat egin zen autonomi eskaera zela eta): Rusedindo Bornas, *¿Qué es el Fuero? Contenido del Fuero guipuzcoano. Su reimplantación y consecuencias que de ella pueden derivarse*.

- I CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS, Oñati, 1918: *Recopilación de los trabajos de dicha asamblea, celebrada en la Universidad de Oñate del 1 al 8 de septiembre de 1918, bajo el patrocinio de las diputaciones vascas*, Bilbo, Bilbaína de artes gráficas, 1919-1920.

- II SEMANA INTERNACIONAL DE ANTROPOLOGIA VASCA, Bilbo, 22 abril 1971, *El Derecho Privado Vasco-Navarro ante la Codificación* (Mahaingurua). Edizioa: Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1971.

Konstituzioak eta Estatutuak ohiturazko Zuzenbidea dagoela onartzen dute. Beraz, horrek, bi ordenamendu desberdin daudela esan nahi du, eta ordenamendu horiek kontrajarriak direla. Ohitura horren existentzia onartzeak, legearen kontrakoa den heinean soilik du zentzua. Hori finkaturik, Zuzenbide hori kontserba, alda eta gara daiteke eta behar da, legeak, ohiturak onartzeaz aparte, indarrean daudela esaten du baitu.

Gauzak horrela, legeria hori garatzeko aukerak bi eremuk mugatzen dituzte; hau da, eremu territoriala zein

den eta zein eremu materiala⁵² finkatu behar da. Gai hori sakonki aztertzeak lan berezi eta luze baten beharra izango luke. Horregatik, lurralde historiko bakoitzak liburu propioa duela Legean soilik aipatuko dugu, eta konpilatua zegoen legeriaren eremu territoriala ez dela aldatu oro har. Gipuzkoari dagokionez, xedapena lurralde osorako da eta, bere kasuan, eta biltzen den ohituraren arabera, agian zehaztu egingo da zein lurraldetan izango den aplikagarri eta non ez. Eremu materialean, aldiz, legeak berak ezartzen du irizpide objektibo bat: «Baserriaren eta familiaren

-
- SEMANA DE DERECHO FORAL (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País), Bilbo-Gernika, 30 noviembre-1 diciembre 1979.
 - CONGRESO: EL FUERO DE SAN SEBASTIAN Y SU ÉPOCA. DONOSTIAKO FORUA ETA BERE GARAIA (Eusko Ikaskuntza), Donostia, 1982.
 - I CONGRESO DE DERECHO VASCO: LA ACTUALIZACION DEL DERECHO CIVIL (Departamento de Derecho Civil de la UPV/EHU), San Sebastián, 16-19 diciembre 1982. Edizioa: Oñati, Instituto Vasco de Administración Pública, 1983; "Crónica del Congreso", *Anuario de Derecho Civil* 36-2 eta *Revista Vasca de Administración Pública* 6, 1983.
 - JORNADAS DE ESTUDIO SOBRE LA ACTUALIZACION DE LOS DERECHOS HISTORICOS VASCOS (Facultad de Derecho de la UPV/EHU), Donostia, 15-19 julio 1985. Edizioa: Donostia, EHUko Argitarapen zerbitzua, 1986.
 - VI JORNADAS DE VIZCAYA ANTE EL SIGLO XXI: ACTUALIZACION DEL DERECHO CIVIL VIZCAINO (Real Sociedad Bascongada de Amigos del País), Bilbo, 10-12 diciembre 1986.
 - II CONGRESO MUNDIAL VASCO: CONGRESO DE DERECHO PRIVADO (Gobierno Vasco), 13-16 octubre 1987.
 - II JORNADAS DE ESTUDIO DEL ESTATUTO DE AUTONOMIA DEL PAIS VASCO (Instituto Vasco de Administración Pública), Donostia, 11-14 diciembre 1990, Edizioa: Oñati, HAEE/IVAP, 1991, I. tomoa; ponentzia Asua Gonzalez Clara I., *Derecho civil vasco*, 176. orrialdea; komunikazioa Martín Osante Luis Carlos, *El Tribunal Superior de Justicia y el Derecho civil vasco (El recurso de casación por infracción del Derecho Civil Foral o Especial de la Comunidad Autónoma del País Vasco)*, 268. orrialdea.
 - JORNADAS DE DERECHO PRIVADO VASCO (Eusko Ikaskuntza), Donostia, diciembre 1990 (Argitaratzeaz).
 - JORNADAS INTERNACIONALES SOBRE INSTITUCIONES CIVILES VASCAS (Universidad de Deusto), Bilbo, 20-23 febrero 1991.
 - II CONGRESO DE LA ABOGACIA VASCA (Consejo de la Abogacía Vasca), Gasteiz, 15-18 mayo 1991. Edizioa: Iruñea, Aranzadi, 1991; ponentzia Aycart Orbegozo, José M^a, *Herri-Lege Gipuzkoarra egituratzeko aukera*, 6. orrialdea.
 - II JORNADAS DE DERECHO PRIVADO VASCO (Eusko Ikaskuntza), Donostia, 28-31 enero 1992 (Argitaratzeaz).
 - III JORNADAS DE DERECHO PRIVADO VASCO (Eusko Ikaskuntza), Donostia, 20-23 abril 1993 (Argitaratzeaz).
 - JORNADAS DE DERECHO FORAL VASCO (Ilustre Colegio Notarial de Bilbao), 1993ko martxoan, *El Derecho Foral Vasco tras la Reforma de 1992*, Aranzadi Editorial, Iruñea, 1992; Gipuzkoaren egoerari buruzko aipamena Aycart Orbegozo, José M^a, *Referencia a las peculiaridades de Guipúzcoa*, 243. orrialdea.
 - ZUZENBIDEA EUSKARAZ I. JARDUNALDIAK, *Euskal Herriko foru zuzenbidea: egungo egoera*, Deustuko Unibertsitatea, maiatzak 11, 16 eta 17, 1994.
 - IV JORNADAS DEDERECHO PRIVADO VASCO (Eusko Ikaskuntza), Donostia, 1-3 diciembre 1994 (Argitaratzeaz).

52. Ikus Asua 1991: 177.

ondasunen antolaketa»; eta hori 4. artikulua ezartzen duen printzipioaren argitan: «Askatasun zibilaren oinarriaren arabera».

Beraz, lehen fase batean Gipuzkoako ohiturak baieztatzea eta indarra aitortzea besterik ez da egin. Orain bigarren fase bat irekitzen da, Gipuzkoari dagokion legeriaren eremu territoriala eta materiala finkatu beharko delarik.

Gipuzkoarako araudi idatzi baten atzetik

Ohitura horiek biltzen hasteko metodologiari buruz zenbait ideia eman izan dira⁵³. Dirudenez adostasuna dago alde batetik ikerketa juridikoak egin behar direla, testu legalak, notarioen protokoloak, artxiboak eta epaitegiek eman dituzten erabaki eta epaiak aztertuz. Eta, horrez gain, zenbait beharrezkoa ikusten du ohiturak ezagutzea eta aztertzea, bere eremu materiala eta territoriala jakiteko, inkesta, estatistika eta ikerketa soziologikoen bidez, kaleko eta base-rietako bizitza bera bilduz (Lacruz 1971: 156 eta Celaya 1971: 162).

Mende honen hasieratik honantza ohitura horiek indarra galtzen joan dira, batik bat gizarte industrializatu batean murgildu delako Gipuzkoa, eta nekazal arloa gero eta baztertuagoa dagoelako. Hala ere Gipuzkoako Aldundi Probintzialak 1920-30eko hamarkadan ohiturak idatziz jartzeko egindako ahaleginek ikuspegi aurrera-

koi bat dute, errealitate sozioekonomiko berriari erantzutea hain zuzen ere. Ohiturak behar bati erantzuna ematen dio, eta, ondorioz, egin beharrekoa behar hori aztertzea eta gaurko gizartearentzat egokia den erantzun zuzena ematea da. Hemendik aurrera aztertu beharrekoa zera izango da, hain zuzen ere zer nolako araudia behar dugun; horretarako, noski, oso balio handikoa izango da orain arte egon dena, esperientzia luze batean oinarritua dagoenez.

Zenbaitek proposatu du inguruko Foru-Zuzenbideetatik erakundeak Euskal Komunitate Autonomo guztira zabaltzea. Ideia hori 1971n argi eta garbi azaltzen dute De los Mozos irakasleak eta Cillán Apalategui irakasle gipuzkoarrak («yo pido que se reconozca la vigencia plena y que se extiendan a ella instituciones civiles de las otras provincias forales vasconavarras»)⁵⁴. Ideia hori defendatzeko zenbait argudio erabili ohi dira. Honez gero frogatutzat jotzen dena da foru-sistema desberdinen artean parekotasun nabarmena dagoela oinarrian behintzat; onar daiteke, behar bada, sistema bakoitzak bilakaera propioa izan duela eta horregatik maila desberdinetan daudela, baina azken finean beren helburua berdina da. Hori nabarmenagoa da euskal giroko foru-sistemetan, zeintzuetan parekotasuna behin eta berriro frogatua izan den. Horren arabera, ez dago printzipioz arrisku handiegirik beste euskal lurralde batean legez arautua dagoen erakundea aplikatzerakoan; arrisku horren argudioa erabili izan ohi da

53. Bereziki ikus Salinas 1982.

54. II SEMANA INTERNACIONAL DE ANTROPOLOGIA VASCA, 1971: 134, 146. Celaya Ibarak ere, 1981ean aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Zuzenbidea eguneratzeko aurreproiektuan, Bizkaiko zuzenbidea hartzeko aukera proposatzen du: *Primer Congreso de Derecho Vasco: la actualización del Derecho civil*, HAEE/IVAP, Oñati, 1983, 113.

leku-zabaltze horiek ez onartzeko. Baina, Euskal Herriaren kasuan, era batera edo bestera antzeko erakundeak egon badira indarrean lurralde guztietan, arrisku hori baztertua, edo gutxienik urritua geratzen da.

Kontzientzia kolektiboa, eta familia-eta gizarte-antolaketa antzekoak dira euskal gizartean. Gaur egun, eskubide historikoek beren legitimitatea herriaren, nazioaren ideian dute, eta ez foru-lurralde desberdinetan; ideia hori gaur egun onartuta dagoen zerbait da, zatiketaren ideia gaindituz. Eta Zuzenbidea herri baten idiosinkrasia osoaren, eta bereziki Zuzenbide Zibilean, familia eta jabetza antolatzeko modu bereziaren ondorio da. Hain zuzen ere, horregatik Gipuzkoan ez da Kode Zibilaren aplikazioa onartu, eta foru-ohiturei eutsi izan zaie; arau horiek herriaren nahiari erantzuten diote behar hori berdin sentitzen delarik lurralde guztietan. Horregatik ziren berdinak foru-arauak Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat, XV. mendeko dokumentuek erakusten dutenez, eta horregatik izan beharko lukete orain ere. Beraz, arazoa ez da juridikoa; arazoa politiko-juridikoa da.

Arau horiek lurralde batzuek idatziz jasotzen dituzte, baina Gipuzkoan beti ohitura moduan egon izan dira. Horren arrazoiak azaltzeko zenbait kausa daude: azaldutako arrazoi historikoez gain, esan daiteke zenbait garaitan beharrezkoa zen ardura falta izan dela (esaterako Kode zibila egiterakoan Gipuzkoako inor presente egon ez izana), eta azken garai honetan bene-

tako ikerketa sakon batzuen eza (batik bat beti uste izan delako Gipuzkoan ez dela Foru-Zuzenbide Pribaturik egon).

Lege bakar baten alde esan daiteke ez dela zentzuzkoa herri bereberean eraentza desberdinak egotea; hori 1959ko Bizkaiko Konpilazioak berak ere gaitzesten du bere zio-adierazpenean eta kaltegarritzat jotzen⁵⁵. Lege berriaren norabide hori aldarrikatzea da zuzenena; Foru-Zuzenbide Zibileko lege bat eta Euskal Komunitate Autonomo osoan behintzat eragina izango duena, gutxienik oinarritzko printzipioetan.

Eta arazoa politiko-juridikoa da, Konstituzioaren eta Estatutuaren arabera, legeria zibila garatzeko aukera Foru-Zuzenbidea duten Komunitate Autonomoek baitute, eta zalantzarik ez dago Euskadiko Komunitate Autonomoak baduela aukera hori, eremu territorialean mugarik izan gabe. Eta eremu materialean muga Konstituzioko 149.1.8. artikulua ezartzen dituen mugapenetan dago⁵⁶. Foru-Zuzenbidea izateak eskuduntza hori garatzeko titulua ematen du, bere eremuetan mugarik izan gabe, beti ere, aipatu dugun Konstituzioko artikulua horrek ezartzen dituen mugapenak salbu. Bestela, etorkizuna historian zehar gertatu diren zenbait gertaeraren menpe jartzea izango litzateke.

Eskuduntza horren arabera Legebiltzarrak aukera bat egin du legea ematerakoan. Eta, egia esan, ez da batere ausarta izan bere eskuduntza garatze-

55. «La eficacia funcional del Derecho Vizcaíno sigue estando gravemente comprometida, por lo que históricamente ha constituido la debilidad interna del propio sistema: la imprecisión de la base territorial del fuero, la permanente colisión de los regímenes jurídico-civiles coexistentes sobre el territorio».

56. Ikus Gil 1992; Lacruz Berdejo 1992 (hitzaurrea); Gil eta Hualde 1994; Asua, Gil eta Hualde 1994: 9.

rakoan, gehienbat lehen zegoena jaso eta txukuntzea besterik ez baitu egin.

Bestalde, badirudi oraingoz nekazal legeria baten atzetik joan nahi dela Gipuzkoan; azken finean oraindano ikusi eta aztertu ahal izan diren ohitura guztiak nekazal arlokoak dira eta bertan aplikatu direnak. Nekazal arlo horretan bere babeserako legeria zibila ematea, noski, oso baikorra da⁵⁷. Baina, nekazal sektorea, berez krisian egoteaz gain, garrantzi txikikoa da oraingo gizarte industrializatu honetan, eta, hori kontuan izanik, gizarte horren behar berriei eman behar zaie erantzuna⁵⁸.

Ohituratik abiatuz zenbait Komunitate Autonomok legeak egin dituzte; horrela Valentzian eta Galizian, landatar akurapen historikoei buruz ohitura bereziak zituztela eta, lege-xedapen batzuk eman dituzte, eta arau horien kontra helegitea aurkeztu du Estatuko Gobernuak Auzitegi Konstituzionalaren aurrean⁵⁹. Beraietatik, eta Gipuzkoaren kasuan, ezer gutxi atera daiteke; interesgarriena zera da, onartzen duela konpilatu gabeko ohiturazko erakundeak jasotzea, bai konpilazioa duten lurraldeetan bai horrelakorik ez daukatenetan. Eremu territorialaren arazoa ez da ukitu, Galizian eta Valentzian horrelako arazorik ez dagoelako, baina badirudi

ohituraren indarra zein den eta non dagoen zehazteko froga Komunitate Autonomoen esku geratzen dela gehienbat.

Gipuzkoan badirudi oraindik ez dela hori egingo. Lehenbizi ikerketak egiteko bidea jarraituko dela ematen du; Celaya Ibarrek, Eusko Ikaskuntzak antolatu eta haren omenean egindako Euskal Zuzenbide Pribatuari Buruzko III. Ihardunaldien propaganda-foiletan haxe dio: «Hala beraz, euskal juristek, eta gipuzkoarrek bereziki, ohitura zaharrak zeuden ilunpetik atera ditzaten bidezko ikerketei ekitea premiazkoa dela dirudi».

Ondorengo berriek ere hori adierazten dute. Gipuzkoako Abokatuen Kolegioak batzorde bat sortua du ikerketa horiek bultzatzeko eta sustatzeko⁶⁰. Hartu den aukeraren arabera Gipuzkoako Lurralde Historikoaren esku geratzen da; berak egin beharko du legea (nahiz eta gero formalki Eusko Legebiltzarrean onartua izan beharko duen), eta bere Zuzenbide Foral propioa egingo du (lurralde bakoitzean legeria desberdina egongo da). Nagusitasuna zeini eman behar zaion erabaki beharrekoa da: pertsonari edo jabegoari (nekazal Zuzenbidea moldatuz), eta horren barruan familiak existentzi-zentru izan behar duen ala lotura-zentru izan behar

57. Eta horrela aitortzen dute nekazal ordezkariak, baina lege zibilaz gain, beste arau eta erabaki batzuen behar handiagoa azpimarratzen dute; ikus Aristegi *Egin* 1993-04-26; Erize *Ardatza* 1993-04-22.

58. Ikus López Jacoiste 1965: «...la inclusión de ciertas instituciones forales entre las de orden agrario no ha de significar una ruptura de la continuidad foral, sino una nueva incumbencia de su desarrollo: la de contribuir a ordenar e inspirar la especialidad iusprivatística rectora de la vida agraria del presente».

59. 121/1992 epaia, irailaren 28koa, 361/1987 konstituziokontrako helegitea, Estatuko Gobernuak Valentziako Generalitatearen 6/1986 legearen aurka ezarria (BOE: 1992ko urriaren 29a); eta 182/1992 epaia, azaroaren 16koa, 347/1987 konstituziokontrako helegitea, Estatuko Gobernuak Galiziako Legebiltzarraren 2/1986 legearen aurka ezarria (BOE: 1992ko abenduaren 18a). Zuzenbide foralari buruz, ikus baita Auzitegi Konstituzionalaren 88/1993 epaia ere (BOE: 1993ko apirilaren 15a).

60. Aycart *El Diario Vasco* 1993-06-07.

duen. Hori guztia, beraz, arazo politiko-juridikoa da eta borondate politikoaren arabera egongo da.

Esan dezakegu, amaitzeko, lan horretan kontuan hartzekoa izan beharko litzatekeela Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko Legea urrats txiki bat besterik ez dela etorki-

zunean Komunitate Autonomo osorako eman beharreko legeria amankomun baten atzetik, eta, harago joanda, Nafarroako eta Iparraldeko printzipio juridiko-pribatu nagusiak ere kontuan izan behar direla, egunen batean benetako Euskal Zuzenbide Zibila lortzeko asmorik baldin badago behintzat.

Bibliografia⁶¹

- Alonso Martínez, (1947): *El Código Civil en sus relaciones con las legislaciones forales*, Madril.
- Araluce y Villar, J.M. de (1970): "La ordenación familiar del caserío guipuzcoano: el ordenamiento jurídico y el derecho consuetudinario", [R.S.B.A.P.ko partaide izateko sarrera-hitzaldia, Azkoitia (Insausti Jauregia), 1970-06-23], *Unidad* 1970-06-24/25/26.
- Arechederra Aranzadi, L.I. (1986): "Testar a la navarra. Derecho consuetudinario guipuzcoano o descodificación", *RJN*, 1, 87; *RDN*, uztaila-abendua, 7.
- Aristegi, M. (1993): "Baserriaren iraupena", *Egin*, 1993-04-26.
- Arpal, J. (1979): *La sociedad tradicional en el País Vasco*, L. Haranburu, Donostia.
- Arrue Mendizabal, M. eta Martín Osante, L.C. (1991a): "Crónica de Derecho civil vasco: situación actual en la perspectiva de su reforma", *ADC*, 1277.
- (1991b): "Euskal Zuzenbide zibilari buruzko kronika", *RVAP*, 31, 311.
- Asua González, C.I. (1991): "Derecho Civil Vasco", in *II Jornadas de Estudio sobre el Estatuto de Autonomía del País Vasco*, HAEE/IVAP, Oñati, 176-177.
- Asua González, Gil Rodríguez eta Hualde Sánchez, (1994): "El ejercicio de la competencia en materia civil por parte de la Comunidad Autónoma del País Vasco", *Derecho Privado y Constitución*, 2, 9.
- Aycart Orbegozo, J.M. (1993): "Un paso importante", *El Diario Vasco*, 1993-06-07.
- Ayerbe Iribar, M.R. (1985): *Historia del Condado de Oñate y Señorío de los Guevara*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Ballarín Marcial, A. (1978): *Derecho Agrario*, Edersa, Madril.
- Ballesteros Hernández, L.M. (1982): "De la familia foral a la familia agraria: la explotación familiar rural y la protección a su integridad", *RDP*, 1031.
- (1990): "Anotaciones y puntualizaciones a la historia del reformismo agrario español", *RDP*, 285.
- Blasco de Imaz, C. (1966): *Los Fueros: apuntes guipuzcoanos*, Editorial Ethos, Donostia.
- Bornas, R.: *¿Qué es el Fuero? Contenido del Fuero guipuzcoano. Su reimplantación y consecuencias que de ella pueden derivarse*.
- Celaya Ibarra, A. (1971): Cf. *II Semana Internacional de Antropología Vasca*.
- (1983): *Primer Congreso de Derecho Vasco: la actualización del Derecho Civil*, HAEE/IVAP, Oñati, 113.
- (1993): *Derecho Civil Vasco*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Cillán Apalategi, A. (1959): *La Comunidad Foral de Pastos en Guipúzcoa*, Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, Donostia.

61. Ikus baita 51. oharrean Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko zerbait dakarten Kongresu eta lhardunaldietako batzar-agiriei buruzko berri-ematea.

- La crisis agrícola y pecuaria. Información escrita de la Comisión creada por Real Decreto de 7 de julio de 1887 para estudiar la crisis por que atraviesa la agricultura y la ganadería*, (1887), Sucesores de Rivadeneyra, Madril.
- Cuenca Anaya, F. (1983): "Explotación familiar y agricultores jóvenes: estudio de la ley de 24 de diciembre de 1981", *RCDI*, 415.
- Díez de Salazar Fernández, L.M. (1980): "Vigencia y aplicación del principio de la troncalidad de bienes según el fuero de San Sebastián", *Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián*, 275.
- Domínguez y Barros, J. (1931): *El derecho prelativo de los arrendatarios en las ventas de las fincas rústicas que cultivan*, RDP, 273.
- Echegaray, B. de (1950): *Derecho foral privado*, Biblioteca Vascongada de los Amigos del País Vasco, Donostia.
- (1969): "La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas", *RIEV*, XIII, 273-278; 582-586 eta XIV, 27-60.
- Erize, J. (1993): "La Ley de Derecho Civil Foral y el caserío vasco", *Ardatza*, 1993-04-22.
- Fosar Benlloch, (1963): "La explotación agrícola y el párrafo segundo del artículo 1.056 del Código Civil", *ADC*, 16, 377.
- (1971): "Más sobre el artículo 1.056.2 del Código Civil y la explotación agraria. El principio general de derecho de la atribución sucesoria unitaria de la explotación familiar", *RCDI*, 225.
- Fuenmayor Champin, (1948): "La mejora de labrar y poseer", *ADC*, 897.
- Gallastegui Artiz eta Ruigómez Velasco, (1942): *Problemas planteados en el agro guipuzcoano*, Gran Certamen agropecuario de Guipúzcoa, Tolosa.
- García Cantero, G. (1986): "Más sobre el derecho consuetudinario guipuzcoano", in *Jornadas de Estudio sobre Actualización de los Derechos Históricos Vascos*, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- García Cortázar, J.A. (1973): "El fortalecimiento de la burguesía como grupo social dirigente de la Sociedad bascongada a lo largo de los siglos XIV y XV", in *II Simposio RSBAP y Junta de Cultura de Vizcaya*, Publicaciones Excma. Diputación Provincial de Vizcaya, Bilbo.
- Gil Rodríguez, J. (1992): "Derecho Foral versus derecho Civil Vasco (Una perspectiva desde Guipúzcoa)", in *Estudios dedicados a la memoria del Profesor L. M. Díez de Salazar Fernández*, II, EHUKo Argitarapen Zerbitzua, Bilbo.
- Gil Rodríguez, J. eta Hualde Sanchez, J.J. (1994): *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila*, Technos, Madril.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (1983): *Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*, azken edizioa, Publicaciones de la Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia.
- HAEE/IVAP, (1983): *Primer Congreso de Derecho Vasco: la actualización del Derecho Civil*, HAEE/IVAP, Oñati.
- Jado y Ventades, (1923): *Derecho civil de Vizcaya*, Bilbo.
- Lacruz Berdejo, (1971): Cf. *II Semana Internacional de Antropología Vasca*.
- (1992): *Zuzenbide Zibileko Hastapenak*, Elkar-Elhuyar, Donostia.
- Leal Ramos, (1936): "Factores jurídicos y sociales del problema agrario, Problemas agrarios de España", in *VIII curso de las Semanas Sociales de España*, Madril.
- Leizaola, J.M. (1933): "Sobre la libertad absoluta de testar en Euzkadi", *Yakintza*, I, 207.
- López Jacoiste, (1965): "Derecho foral como Derecho Agrario", in *Estudios de Derecho Público y Privado ofrecidos al Profesor Dr. D. Ignacio Serrano y Serrano*, Universidad de Valladolid I, 483.